

## Arantzazun, 2002.eko uztailaren 18an

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua,  
Henrike Knörr, buruordea (arratsaldean),  
Xabier Kintana, idazkaria,  
Beñat Oihartzabal, Iker Sailburua  
Andres Urrutia, Jagon Sailburua,  
Patxi Altuna,  
Miren Azkarate, (arratsaldean)  
Andolin Eguzkitza,  
Andres Iñigo,  
Juan Mari Lekuona,  
Patxi Ondarra,  
Txomin Peillen,  
Pello Salaburu,  
Jose Mari Satrustegi  
eta Piarres Xarriton euskaltzainak, eta  
Jose Luis Lizundia idazkariorde-  
-kudeatzailea

**Ezin etorriak:** Xabier Dihartzek, Jean Louis Davantek, Emile Larrek, Ibon Sarasolak, Patxi Goenagak eta Jose Antonio Arana Martijak ezin etorria adierazi dute. Azken honek bere ahala X. Kintanari utzi dio, P. Salaburuk P. Goenagaren eta I. Sarasolaren ahalak izanik.

Batzarra goizeko 10,15etan hasi da Arantzazuko Ostatuko bilera-aretoan ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

*Aurreko batzar agiria onartzea*

Andres Iñigok adieraziriko ohar-zuzenketekin, aurreko bileraren akta onartu da.

### *Hasierako galdera*

J.M. Satrustegik Eusko Jaurlaritzak dekretuz terminologiarako batzorde izendatu berriaz galderak egin ditu. Euskaltzainburuak kontu hori M. Azkarate datorrenerako uzteta proposatu eta halaxe onartu da.

#### *1.1.1. Hiztegi batua*

P. Salaburuk *aketo*, *aketiren*, *aker txikiro* hitzen arteko eztabaida planteatu du. Bakoitzari bere esangura ezarri zaio. Ondoren zerrendako hurrengo hitz ohardunak aztertzeari ekin zaio.

Eguerdiaren bazkaltzeko etena egin ondoren, arratsaldeko 4etan, bilduek lexikoa aztertzen segitu dute 6,36ra arte, *ala-alhan*-raino helduz.

### *Terminologia batzordea*

M. Azkarate heldua denez gero, goizean erabaki bezala, terminologia batzordearen kontua argitzea eskatu zaio.

A. Urrutiaren ustez horrelako batzordea elkarren arteko akordioz egin beharko litzateke. Harrigarri deritzo ordezkari horrela jartzeari, hor ez baitago, adibidez, Deustuko eta Mondragon unibertsitateetako ordezkariarik. Euskaltzaindiaren ordezkari horrela,

bestalde, oso mugatua da eta terminologi arlo honetan irizpide ezberdinak gerta daitezke.

M. Azkaratek esan du bere ustez ez dela hor kontraesanik, eta ez duela pentsatzen elkarren kontrako joerarik izango denik. H. Knörri galdetu dio ea berak holakorik ikusten duen Jaurilaritzaren lan-taldean.

H. Knörrek erantzun du ez dagoela guztiz ados lan-talde horren ibileragatik. Besteak beste direla, urtean pare bat aldiz biltzen da, gehienez ere. Bestalde, beldur da Euskaltzaindiak bere erdigunetasuna ez ote duen galtzen ari, beste elkarte askoren arteko bat gehiago gisa agertuz.

M. Azkaratek argi utzi du beste batzuekin bildurik egotea lan egiteko prozedura besterik ez dela, baina azken buruan hitzak onartzeko azken irizpidea beti Euskaltzaindiari dagokiola.

P. Salaburuk esan du Euskaltzaindiak ezin diola M. Azkarateri horrelako konturik eskatu. Ez du uste Gobernuak erabakiak besterik gabe har ditzakeenik, legez Euskaltzaindia baita aholku-emailea. Euskalterm baino lehenago Euskaltzaindiaren erabakiak jarri beharra legoke, Patxi Goenagari inoiz esan dionez. Gogoratu du, halaber, terminologia kontuan Euskaltzaindiak aspaldian duen moteltasuna, eta bitartean irakaskuntzan horren premia duen jende prestatu asko dabilela kezkatu. Bere ustez horri irtenbidea eskaini behar zaio.

X. Kintana ez dago terminologia batzordea sortzeko prozeduraz konforme, eraztea bera eta partaidetza alde aurretik jakinarazi tratatu behar direlako, interesatuok horren berri prentsatik jaso barik.

J.M. Satrustegik galdetu du ea Zuzendaritzak horren berri ba ote zuen. Ezetz erantzun zaio. Toponimian gertatzen den kontraesana azaldu du: udalek izen eta toponimo biltzaileei, lan hori egitearren, dirua ordaintzen dieten artean, hura aztertu eta erabaki behar duenarentzat, hots, Euskaltzaindiarentzat, ez dago ordainketarik, ez eta giza baliabiderik ere. Bere ustez gure Akademiak ezin dezake bedekazio unibertsal orokorrik eman, lan-ordu asko egin beharra baitago dagoen material guztia behar den arretaz aztertzeko.

A. Urrutiak esan du, hau ez dela kontuak eskatzea, eta ez duela berak puntu hori goizean atara. Prozedura aldetik, Zuzendaritzan proposamena egingo duela, osokora pasatzeko. Zizurren argi gelditu zen irizpidea Euskaltzaindiak erabaki eta finkatu behar duela. Bere ustez gure barruko giroa ez da ona, eta gure artean adostasuna lortzen ez dugun artean, ez gara aurrera joango. Alde horretatik, gisa horretako dokumentuak ez dira lagungarri, hor inposizioa ageri baita, eta ez akordio giroa.

A. Eguzkitzak adierazi du horrelako adostasuna inoiz lortu dela, adibidez, exonomastikan, Elhuyarreko kideekin elkarlanean.

M. Azkaratek bere harridura agertu du. Proposamen hori udazkenean ikusi zuela dio eta Euskaltzaindiaren aholku-emaile bakarra egon arren, ez ziola horrelako arriskurik ikusi. Katalunian eta Quebecen, adibidez, akademiak gainera badira terminologian ari diren beste talde batzuk ere. Edonola ere, oraindik ez da erabaki batzorde horretan nola lan egingo den.

A. Urrutiak esan du bera asperturik dagoela konplize izan beharraz, aldarrikatzen dena, ordea, lankidetza omen den bitartean.

M. Azkaratek barkamena eskatu du Euskaltzaindiak batzorde horren berri prestatik jakin beharragatik. Halere, guztion artean lankidetza ona lortuko dugulakoan dago.

Bilera 7,30etan eten da, frantziskotarren omenaldiko ekitaldira joateko.

\* \* \*

Euskaltzainak Arantzazuko bilera aretora heldurik, fraide eta orotariko jendearekin batera, horien artean R. Badiola eta J. Intxausti euskaltzain urgazleak izanik. Juan Telesforo Zuriarrain gardianoak guztiei ongi etorria eman die.

J. Haritschelhar euskaltzainburuak agurra eta eskerrak eman dizkio aita guardia-noari, Euskaltzaindiak frantziskotarrekin dituen aspaldiko loturak eta harreman onak laburki aipatuz.

Ondoren, J.A. Arana Martijaren ezin etorria azaldu eta bere txostena oso-osorik geroago prestatuko duela adieraziz, J.L. Lizundia idazkariorde-kudeatzaileak «Arantzazu eta Euskaltzaindia» izeneko bere txostena irakurri du. Hor datu zehatz askorekin, Arantzazuk bai pertsonetan –urte luzez gure euskaltzainburu izandako L. Villasante Kortabitarte jauna bereziki goraipatuz– eta bai bilerak –aditz batuarena adibidez– egiteko aretoak eskainiz, Euskaltzaindiarekin izandako harreman sakona eta tratu ezin hobeaz azpimarratu ditu, hortik helduriko fruitu bikainekin.

Azkenean, bilduriko guztien txaloen artean, euskaltzainburuak frantziskotarrei gure Akademiaren zilarrezko domina eman die, testu honekin: «*Frantziskotarrei, Arantzazuko 500. urteurrenean, 2002-VII-18, Euskaltzaindia*».

Bukatzeko, anaiarteko afaria egin da ostatuan, amaieran frantziskotarrek euskaltzainei *Arantzazu: euskal santutegi bat XX. mendean* eta *Asisko Frantzisko – Asisko Klara* liburuen ale bana eskainiz.

## Uztailak 19

Bilera goizeko 10,05ean hasi da. Bezperako euskaltzain guztiak bertan dira, M. Azkarate salbu, beronek bere ahala P. Salabururi utzirik. J.J. Zearreta ekonomi eragilearenekin etorri da.

### 1.2.1. Onomastika

Nafarroa Behereko zerrenda onartuak (*Garazi, Baigorri - Ortzaize eta Arberoa*) banatu dira. *Lekunberri* herriari, bereizi behar denean, *Lekunberri Hergarai* deituko zaio. Era berean *Bastidaren* kasuan, behar denean, *Arberoa* gaineratuko zaio.

### 1.3. Kontuen Ganberako irizpen eskaria

Nafarroako Kontuen Ganberak bere izen elebildunean *Comptos* erdal izena euskaraz ere mantentzeko eskaria aztertu da ondoren; J.M. Satrustegi bera ere *Comptos* hitza gordetzearen alde agertu da.

P. Ondarrak *comptos* galizismoa dela uste du eta ez nafar izen jatorra. Lizundiak *ganbera* hitzaren hobespena zergatik den azaldu du, euskara baturako *ganbara* (= «mandioa») / *ganbera* (= «areto, gela nagusia») bereizketa egitea onartu baitzen.

A. Eguzkitzak *konptu* proposa litekeela uste du. X. Kintanak euskarazko hitz jator bakarra *kontu* dela esan du, *-pt-* grafia horrek ez baitu gure artean inolako tradizioirik.

H. Knörren iritziz, erakundeen izenak maiz tradiziozkoak izaten dira, eta bera konforme dago *comptos* hori erdaraz erabiltzeaz, euskaraz *kontuak* litzatekeen arren.

J.M. Satrustegiren ustez aukera bikoitza da: *comptos ganbera* ala *kontuen ganbera*. Arrazoi historikoengatik berak *comptos ganbera* nahiago luke. Peillenek Axularren eta Leizarragaren lekukotasuna aipatu du, biek *kontu* erabili zutela gogoratu. P. Xarritonek ere euskal itzulpena nahiago du: *Kontuen ganbera*, alegia. P. Ondarrak ere gauza bera dio.

J.L. Lizundiak *Camara de COMPTOS Ganbera* proposatzen du. A. Iñigok esan du gogoan izan behar dugula lehenago zer erantzun zitzaien, eta *comptos ganbara* onzat eman genuela.

A. Urrutia konforme dago J.M. Satrustegiren proposamenarekin, hor nafar erakunde zaharren nortasuna gordetzen delako. B. Oihartzabal ere horretan bat dator, *Comptos* izen propio eta berezia balitz bezala harturik. Halaxe onetsi da. Erdarazko *auditor* esateko, berriz, euskaraz *aditzaile* hitzari egoki eritzi zaio.

## 2. 2003.eko aurrekontuak

Euskaltzainen artean 2003.eko aurrekontuen proposamena banatu ondoren, J.J. Zearretak horko datuak xheki azaldu ditu. Berak esan duenez, ez dira aurrekontu idealak, iazko datuak eta aurtengo sei hilabeteetako datuak kontuan izanda moldaturikoa baizik. Bere ustez igoera beharko lukete, lasaitasunez ibil gintzen.

Ondoren, litezkeen diru-iturrien inguruan, iruzkin batzuk egin dira.

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Atlas linguistiko berezia prestatzeko eginiko eskaria dela eta, Beñatek argitu du horrek ez duela esan nahi Euskaltzaindiak eskari horrekin konpromisoa hartu duenik.

J.L. Lizundiak kexa agertu du Euskaltzaindiari eskatzen zaizkion gainbegiratze-lanengatik (Elhuyar-en testu liburuen terminologia edo onomastikakoak adibidez) Jaur-laritzak laguntzarik batere ematen ez digulako, beste batzuei Elhuyarri berari, kasu, horixe eskaintzen dion artean. Arlo honetan katalanek dituzten hornizio eta laguntza hobeak aipatu ditu.

P. Xarritonek kezka bera azaldu du, baina, bere irudiko, ez dugu ahanzi behar katalanak baino txikiagoak garela. Euskaltzaindiak bere egitekoak mugatu beharko litzukeela esan du. Txikitetasun kontu hori dela eta, X. Kintanaren ustez, badira oinarriko gastu batzuk, oinigitura eta aurrelani buruzkoak, hizkuntz akademia guztietan berdintsuak izaten direnak, hiztunak asko zein gutxi izan.

Horri J.L. Lizundiak erantsi dio katalanek, batasuna guk baino eginagoa dutenez gero, lan gutxiago egin behar izaten dutela, guk biluzketa lana neurri handiz oraindik egiteke dugulako, eta, beraz, bekadun laguntzaileak beharko ginituzkeela.

A. Eguzkitzak laguntza hori gure aurre-lana prestatzeko beharko genukeela azaldu du.

P. Salaburuk aurrekontuei buruzko galderak egin ditu. Txostenak, hilberriak etab. ordaintzeko irizpideen argitasunak eskatu ditu, eta dirua egonez gero, lan guztiak ordaintzearen alde agertu da.

J.J. Zearretak hori Zuzendaritzan onartu zenaren arabera dela azaldu dio, baina proposamena kontuan hartzen duela. Aurkezturiko aurrekontu hauei zuzenketak eta aldaketak egiteko azken epea, beranduenik, irailaren 2rako jarri da.

P. Salaburu UZEri egiten digun lanagatik ordaintzen zaion diruaz mintzatu da, eta ez deritzo ongi orain arteko sistemari. Bere ustez, lan azpikontratatu ezartzeko modua berrikusi beharra legoke, Euskaltzaindiaren zereginak desitxuratzen dituelako. J.L. Lizundiak eta J. Haritschelharrek ontzat hartu diote iradokizuna. Ondoren, Euskara Baturako darabilgun sistema informatikoaren iraungikortasunaz mintzatu da, eta horren kostua ere kontuan hartzeko.

A. Eguzkitzak hitza eskatu eta, irizpenak eskatzen zaizkigunean, eskatzaileari horien diruzko balioa aurretik jakinarazi behar zaiola esan du. Euskaltzainburuak hori Zuzendaritzak tratatuko duela erantzutxo dio.

J.M. Satrustegik J.J. Zearretari gure oraingo zorra zenbatekoa den galdetu dio. Erantzunez, beronek esan dio ez dela hain erraza erantzutea, neurri handiz, guri ordaintzeko daudenak ordaintzetan atzeratu direlako egina denez gero, baina hori ondo ko txostenean azalduko duela.

Oro har, azken orduan egin litezkeen aldaketa txikiak gora behera, aurrekontu-proposamena onartu da.

Ondoren, J.J. Zearretak aurrekontuen erabilera deritzon informazio ekonomikoa idatziz banatu du. Horren azalpenak ere eman ditu. Horien arabera, Euskaltzaindiaren egoera ekonomikoa erabat itogarria dela agertu da.

J. Haritschelharrek azaldu du Zuzendaritzako azken bileraz gero, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailburuarekin mintzatu zela, egoera azaltzeko, eta eskutitz bat ere bidali diola, euskaltzainen artean banatu eta berak guztion aurrean irakurria.

Idazkariak, eguneroko higadura ekonomikoaz gainera, prestigiozko higadura ere aipatu du eta galde egin du ez ote litzatekeen komeniko kanporako adierazpen instituzionalen bat prestatzea, neurriz egina, gure egoera tamalgariaren berri etsaien esku interesatuetara heldu baino lehen, hortik guztion kalterako eskandalu politikorik sor ez dadin.

H. Knörren ustez, diruen atzerapenak lotsagarriak dira, eta irudiz agintariak gutaz trufatzen direla esan du. Bere ustez, hartzekodunek nola gauden jakin behar dute. Bileran esan denez, pertsonal finkoaren soldadak eta gasturik behinenak estaltzeko, kargudunek deus ez kobratzeaz ez dago konforme. Azkue biblioteka liburuak erosi ezinik dagoela gogoratu du. Madrilek eman ez duena nork jarriko duen galdetu du. Bere aburuz, Akademiaren duintasuna bera dago kolokan. Hortik irteteko Jaurlaritzarekin mintzatu beharra dakusa, ondokoak argi planteatzeko: 1) Euskaltzaindiaren laguntza Kultur saillean ez, baizik eta Lehendakartzan eta Hezkuntzan kokatu behar dela. 2) Bere nortasuna aitortu eta errespetarazi behar zaiola. 3) Ordaintzeko epeak bete beharra dagoela.

P. Salabururen iritziz euskaltzainburuaren gutuna bigunegia da, hor esandakoarekin konforme egon arren. Euskaltzaindi osoaren izenean eskari eta eskutitza egin behar zaiola uste du. Ez dakusa egoki, ordea, iritzi publikorako adierazpenik egitea, horrek ez bailituzke gauzak konponduko. Itxura denez, Euskaltzaindiak gure gobernuaren buruari lehenbailehen gutun bat bidali beharko lioke, gure egoeraren berri emateko. Geure aldetik, jasotzen ditugun diru-laguntzen ondorioz nolako lana egiten dugun kontsideratu behar genuke.

A. Urrutiak hitza eskatu eta berehalako neurriez hitz egin du. Lehendakariarekin mintzatzea aspaldian eskatua dagoela gogoratu du, baina hori ere ez dela aski. Bere ustez, konturatu beharra dago euskalgintzaren panorama erabat aldatu dela aspaldian (jende eta talde gehiago dabil hor lanean) eta oraindik ez dugu horri buruzko gogoetarik egin. Txosten bat prestatu beharko litzateke, finantzabide plana mamituz. Barne gogoeta egin beharra dakusa, geure egitekoak ongi finkatzeko. Otsailean (barne jardunaldien barruan) parada ona izan daiteke gure barne gogoetarako.

J.L. Lizundiak Euskaltzaindiko langileek bidaliriko 3.1 txostena oraindik irakurtzeko dugula gogoratzen du. Era berean, interesgarria dela aro berrirako perspektiba argitzea, hizkuntz industria antolatzeke. Barne jardunaldiak azarorako aurreratzea proposatzen du. Hausnarketa horretan, bere ustez, beste pertsona batzuk ere sartu behar lirateke, hileroko batzarretik aparte. Ondoren, langileen eskutitza irakurri du, haien larritasun-kezkak azalduz.

P. Xarrittonek gogoratu du, Durangon ekaineko batzarrean esan zenez, ez zela Nafarroako gobernuarekin hitzarmenik sinatuko aurretik dirua ukan gabe. A. Urrutiak argitasunak eman dizkio. Protokoloa da dirua ukan gabe sinatuko ez dena.

B. Oihartzabalen aburuz bereiztu behar da oraingo larrialdia eta epe luzerako plangintza. Euskaltzaindiaren egoera juridikoa bestela planteatu eta finkatu beharra dago, gaurko zein biharko agintariekin, ideologia ezberdinak gora behera, finantzabidean problemarik ez izateko. Ez dugu geure burua beste enpresa batzuen aurkako sokatiran jarri behar, eta geure jardunbide propioa antolatu eta garatzea dagokigu.

J.M. Satrustegik dioenez, ezin gaitezke otsailera arte begira egon, proposamenak orduan lantzen hasteko. Uda pasatu bezain laster, bildu eta lehenbiziko aldaketen ildoak finkatu beharko genituzke (*Bai Euskarari* kanpainen bezala), aurrelana prestatzeko, berezilariekin elkaturik. UZEIri doakionez, bere ustez Euskaltzaindiak bere baliabide propioen kudeaketa zuzena egin beharko luke, beste batzuentzako laguntzak gestionatu beharrean. Orotariko Hiztegia jendaurrean agertu eta hobeki kudeatzeko premia ere ikusten du.

A. Urrutiaren ustez, lehendakariari esan behar zaio, beragana ezohiko diru bila goazenean, aldi beharrean, oraingo egoera honen irtenbideaz ere gogoeta egiten ari garela. Elkarte pribilegiatu baten tratamendua ematen zaigula aitortu, baina ez, ordea, erakunde gisa legokigukeena.

P. Altunak esan du Espainiako errege-erreginak ez ditugula aspaldion bisitatu eta hori irtenbide bat izan litekeela, eta agian bisita horregatik sor litezkeen marmarek ez luketela luze iraungo.

P. Salaburuk ere oraingo higitze-epe honetan elkarte izateko bidean gabiltzala uste du, eta lehendakariari esan behar zaiola, erakundearena, eta halakotzat tratatzeko, eta, aldi berean, gaurkotzen ari garela.

H. Knörrek esan du Industria Sailera joan beharko dugula diru bila. Horretarako, baina, produktu erakargarriak plazaratzen ikasi behar dugu. Adibide gisa, *Hiztegi batua* ipini du, azala ez baita gaurko munduan erakargarria.

B. Oihartzabalen ustez ez da egia Euskaltzaindia erakunde gisa tratatua denik, aski baita gure hitzarmenak irakurtzea, eta hortik irtenbeharra daukagu. Lehendakariari gai bakarra aurkeztu beharko litzaioke: gure erakundetasuna finkatzea.

J.L. Lizundiak gogoratu du *de iure* Hegoaldeko erakunde bakarra garela, baina Katalunian eta Galizian bezala *llei d'autoritat lingüística* gisako bat falta dugula oraindik. Bere ustez, P. Altunaren bidetik, errege-erregingenanaino joan behar balitz, joan egingo gara.

P: Xarritonek hauxe galdetu du: Erakunde bagara, ez dugu Unescora joan behar Zarzuelara abiatu baino lehen?

A. Urrutiak erakunde (= publiko) eta elkarte (= pribatu)en artean lege aurreko ezberdintasuna azaldu zu xeheki.

Langileei erantzun hau helaraztea erabaki da: bidaliriko gutuna hartu dugula, orain arte izandako pazientzia eta zintzotasuna eskertzen dizkiegula eta haien kezka ulertzen dugula. Bestalde, arazo hori lehenbailehen konpontzeko ahaleginetan gabiltzala.

A. Urrutiak ondoko proposamena egin du: Zuzendaritzan barne gogoeta landu eta azaroko osoko batzarrera aurkeztea. Onartu egin da.

B. Oihartzabalek oraingoz, soil-soilik erakundetasuna planteatzeko eskatu du. Zergatik ez dugu *de facto* jada *de jure* duguna? Agintariek in kontu hau behin ere planteatu ez delako.

### 3.3. Nafar Gobernuarekiko Hitzarmeneko Jarraipen batzorderako ordezkariak

Nafar Gobernuak bidaliriko gutunari erantzunez, Jarraipen batzorderako Euskaltzaindiaren ordezkariak zeintzuk diren xehaturik gelditu dira, oraintsu sinaturiko Hitzarmenean aurrirakusten denaren arabera..

### 3.4. Kontseilurako testua

P. Salaburuk, egindako ohar batekin, joan zen bileran aurkeztu zen testua onartu du. Patxi Zabaletak ez du oharririk bidali. J.M. Satrustegik momentuaren egokitasunaz hitz egin du, eta hortik hel lekizkigukeen kalteak ondo pisatu beharko genituzkeela.

A. Urrutiak testua I. Irazabalbeitiari eskuz ematea proposatzen du. Edonola ere, Euskaltzaindiak *Bai euskarari* leinari eustea aho batez onartu da.

J.L. Lizundiak eta A. Urrutia Kontseiluaren buruarekin elkarrizketatzea proposatu dute, elkarren artean konponbidea lortzeko asmoz.

Bilera 14,20an eten da, bazkaltzera joateko.

Arratsaldeko 4etan bilerari segida eman zaio.

A. Inñigok galdetu du ea zer egin behar duen Kontseiluak egiten dizkion bilera-deiekin. Gure harremanak argitzen ez diren artean, ofizialki ezin joan daitekeela esan zaio. Partikularki joatea zilegi da, baina horrek oraingo egoera honetan ez diola erakundeari mesederik egiten, hor agertzeak izan dezakeen erabilera interesatuagatik.

*Hiztegi batua*

Ondoren, hiztegi batura itzuliz, eztabaidak *aliantza* hitzetik hasi dira, *alo* hitzarekin amaitu arte. Akta honi erantsen zaion gehigarrian onarturiko berba guztien zerrenda ageri da.

Bilera, arratsaldeko 6etan amaitu da.

Euskaltzainburua  
Jean Haritschelhar

Idazkaria  
Xabier Kintana